

IKASTURTEA/ CURSO ACADÉMICO 2025/26

IKASGAIA/ASIGNATURA:	Dual IV	KURTSOA/CURSO:	3. maila
MODULUA/MÓDULO:	Proiektuak/Enpresa	KOKAPENA/UBICACIÓN:	5. eta 6. seiñilekoa
ESPARRUA/ÁMBITO:	---	IRAUPENA/DURACIÓN:	150 h
IZAERA/CARÁCTER:	Kanpo praktikak	KREDITUAK/CRÉDITOS:	6 ECTS
KODEA/CÓDIGO:	28484	HIZKUNTZA/IDIOMA:	Euskara/Gaztelania
PLANA/PLAN:	2024	IRAKASLEA/PROFESOR:	Iñigo Gutiérrez
AIPAMENA/MENCIÓN:	Dual aipamena		

HELBURUA/OBJETIVO:	Dual IV irakasgaiak erakundean aurreikusitako funtzioa modu autonomoan betetzera eraman behar du ikaslea. Horrek esan nahi du bere ardurei dagozkien zereginak eta lantaldeak planifikatu, koordinatu eta gauzatu behar dituela.
---------------------------	--

IKAS-PROZESUAREN EMAITZAK/RESULTADOS DE APRENDIZAJE

RC1 - Ingeniaritzaren berezko ohiturak eta trebetasunak garatzea, pentsamendu sistemikoa, inizatiba, sormena, lankidetzak, komunikazioa eta kontsiderazio etikoak bezalako trebetasunak erabiliz. MOTA: Konpetentzia

RC2 - Ingeniaritzako prozesuetan eta produktuaren berritzea, soluzioa optimizatzeko sistemen portaera arautzen duten aldagai egokiak erabiltzen dituen hausnarketa-prozesu baten bidez. MOTA: Konpetentzia

RC3 - Produktu teknologikoen fabrikazio-prozesuen zatiak erlazionatuz, Ingeniaritzako arazoak kualitatiboki eta kuantitatiboki ebaztea eta aztertzea. MOTA: Konpetentzia

RC5 - Ingeniaritzaren ebazteko hainbat bide anitzen bilaketan barne hartutako prozedurak eta trebetasunak aplikatzen jakitea, hala nola: hipotesiak planteatzea, azterketa-eremuaren berezko zehaztapenak bilatzen jakitea, aldagaien neurketak, kalkuluak eta modelizazioak egitea. MOTA: Konpetentzia

RC6 - Ingeniaritzaren eremutik ateratako ondorioak kritikoki aztertzea eta ebaluatzea. Bertan, konponbideak argudiatzea sartzen da, datuen eta informazioen interpretazioan oinarrituta, gizarte, ingurumen, zientzia edo etika-arloko alderdiak barne. MOTA: Konpetentzia

RC7 - Proiektu teknikoak eta berrikuntzakoak zuzentzeko prozedurak eta trebetasunak aplikatzea, onuradunen beharrak eta igurikimenak asetzeko, Ingeniaritzaren hainbat ezagutza, trebetasun, tresna eta teknika integratuz. MOTA: Konpetentzia

RC8 - Enpresa baten arlo desberdinak martxan jartzea eta zuzentzea, erakundearen eta haren jardueren ikuspegi orokorrarekin, berrikuntza eta hobekuntza-aukerak kontuan hartuta. MOTA: Konpetentzia

RCO7 – Lan-esparruan prozesuen eta produktuen berrikuntzako ingeniari-tza-proiektu bat garatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko faseak ezagutzea. MOTA: Ezagutzak edo edukiak

RCO8 - Prozesu eta produktuen garapen, hobekuntza eta berrikuntzan ezagutza teknikoak eta zientifikoak eskuratzea, enpresaren benetako erronken aurrean. MOTA: Ezagutzak edo edukiak

RCO9 - Ingeniaritzaren benetako testuinguru batean, komunikazio-trebetasunak ezagutzea, konbentzitzeko, ebidentzietan oinarrituta argudiatzeko eta ikus-diagramak eta tresna bisualak erabiltzeko. MOTA: Ezagutzak edo edukiak

RHE1 - Informazio teknikoa hainbat hizkuntzatan ulertzea ingeniari-tzako berrikuntzaren arloan, egoera berrietara egokitzen jakiteko eta ezagutzak komunikatzeko eta transmititzeko gai izateko. Mota: Espektro zabaleko trebetasunak

RHE2 - Aldaketa eta berrikuntza kudeatzea, beharretara eta eskarietara egokituz, egoera berriak gidatuz eta eraginez, eta langile guztien inplikazioa erraztuko duten ekintzak ekarri, ekintzek eta erabakiek epe ertainean duten eragina aztertuz. Mota: Espektro zabaleko trebetasunak

RHE3 - Taldean lan egitea, helburu komun bat lortzeko aktiboki parte hartuz eta pertsonen arteko konfiantzazko eta elkar laguntzeko harremanak ezarri. Mota: Espektro zabaleko trebetasunak

RHE4 – Norberaren proiektu profesionala autonomia handiz kudeatzea, norberaren prestakuntza-beharrak identifikatuz eta horiek hobetzeko konpromisoa hartuz, lana modu eraginkorrean eta efizientean egiteko. Mota: Espektro zabaleko trebetasunak

RHE5 - Berrikuntza-ingeniaritzaren ezagutzak aplikatzea, erakundearen estrategiari modu proaktiboan laguntzeko, negozioaren ikuspegi berritzaile baten bidez, eta ingurumen-jasangarritasunarekin eta genero-berdintasunarekin konprometituta. Mota: Espektro zabaleko trebetasunak

RHT4 - Industria eta/edo antolamendu-ingeniaritzaren eremuan hobekuntza edo berrikuntza-proiektu baten plangintza, antolaketa, zuzendaritza, kontrola, ebaluazioa eta azken itxiera egitea. Mota: Tituluaren trebetasun espezifikoak

RHT5 - Berrikuntzarako testuinguruak sortzea, berrikuntza-sistemak irekitako aukerak aprobetxatuz. Mota: Tituluaren trebetasun espezifikoak

RHT6 - Ingeniaritzako erronkak lanbide-ingurune batean identifikatzera bideratutako jardueren plangintza eta antolaketa egitea, modelizazioen eta datu esperimentalekin kontrastatzearen bidez, eta ondorioak justifikatuz, berrikuntzarik egokienak proposatuz, erantzukizunak hartuz eta hainbat lantaldeetan parte hartuz. Mota: Tituluaren trebetasun espezifikoak

EDUKIAK/TEMARIO

Ikasle-langileak garatu beharreko Profil profesionalari eta gaitasunei lotutako helburuak, lanak eta proiektuak

1. Ikuspegi zientifikoa eskuratzea
2. Tutorearekin ekintza-plan bat egitea
 - 2.1. Ekintza-planeko zereginak gauzatzea
 - 2.2. Erakundearen problematika batekin lotutako artearen egoeraren garapena
 - 2.3. Arazo tekniko baten konponbideak aztertzea eta garatzea, metodo zientifikoa aplikatuz
3. Zereginen eta lanen jarraipena autonomiaz egitea
4. Ebidentziak aurkeztea, egindako lanaren ondorioz

IRAKASKUNTZA MOTA/TIPO DE DOCENCIA

	M	CP	PL	PO	SP	D
Aurrez aurrekoak (orduak)	0	0	0	0	0	300
Lan pertsonala (orduak)	0	0	0	0	0	0

M: Magistrala / CP: Gelako ariketak / PL: Laborategiko praktikak / PO: Ordenagailu bidezko praktikak / SP: Seminario-proiektuak / D: Duala

BALIABIDE DIDAKTIKOAK/MÉTODOS DIDÁCTICOS

Irakasleak azalpenak emateko eta/edo erakusteko saioak.

Irakaslearen laguntzarekin gelan egindako ariketak.

- X Aplikazio praktikoa, bakarka edo taldean ariketak, simulazioak eta esperimentazioak eginez.
- Moduluaren bidez eskuratu beharreko gaitasunen adierazgarri den kasu "integratibo" baten analisia

BIBLIOGRAFIA/BIBLIOGRAFÍA

Egingo den lanaren arabera.

EBALUAZIO METODO ETA IRIZPIDEAK/MÉTODOS Y CRITERIOS DE EVALUACIÓN

Etengabeko ebaluazio-sistema

X Azken ebaluazio-sistema

OHIKO DEIALDIA/ CONVOCATORIA ORDINARIA

% 0 Idatzizko eta/edo ahozko proba

% 0 Praktika egitea eta/edo haiei buruzko txostena egitea

% 0 Txostenak/Entregableak/Ahozko aurkezpenak/Proiektuak

% 100 Dualean jarduerak eta/edo proiektuak egitea

Argibideak/Aclaraciones:

Honako hauek kontuan hartuta ebaluatuko da: helburuen betetze-maila eta ikas-prozesuaren eskuratzeko-maila. Hauek entitateko tutorearekin eta ikaslearekin egindako jarraipen eta ebaluazio elkarrizketan egiaztatzen dira.

Dualeko ikasgaia gaindituko da, ikasleak gutxienez helburuen eta ikas-prozesuaren % 70a bereganatzen duenean.

EZOHIKO DEIALDIA/ CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA

% 0 Idatzizko eta/edo ahozko proba

% 0 Praktiak egitea eta/edo haiei buruzko txostena egitea

% 0 Txostenak/Entregableak/Ahozko aurkezpenak/Proiektuak

% 100

Argibideak/Aclaraciones:

Ohiko deialdiko ebaluazio-irizpide berberak mantentzen dira.